



Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna

Xabier Artiagoitia

► **To cite this version:**

Xabier Artiagoitia. Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna. Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna, 2009, pp.21. <10.artiagoitia2009/jabetzagenitiboaz>. <artxibo-00386557>

HAL Id: artxibo-00386557

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00386557>

Submitted on 22 May 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna

Xabier Artiagoitia

EHU*

Artikulu honetan, jabetza-genitiboen agerrera, banaketa eta zilegiztatzea aztertuko ditut. Kasu genitiboa D eta Q buruen artean datzan *posesibo* (De Wit 1997)¹ buru funtzionalak ezartzen duen egiturazko kasu tasuna dela argudiatuko dut; bigarren kasu genitibo bat, izenaren inguruan IS biluzietan agertzen dena, berezko kasutzat joko dut. Nire proposamenaren berrikuntza nagusia, hala ere, hauxe da: *posesibo* buru horrek kasua bai genitibo subjektuari bai genitibo osagarriari ezartzen diela aldi berean, espezifikatzaile anitzeko egitura sortzen duelarik. Genitibo anitzeko konfigurazio honek lagunduko digu *Pertsona-Kasuaren Murrizketa* (Bonet 1991) hobeto ulertzen: euskarak Jeong-en formulazioa hobestera garamatza: “two DPs cannot be [+person]/[+animate] if they check that feature against the same functional head” (Jeong 2004: 419); bestetik, *Pertsona-Kasuaren Murrizketa* sintaxi mailako hurbiltasun efektu batera laburbiltzen bada (Rezac 2008), egiaztatzen dugu *posesibo* buruaren eta osagarriaren arteko ϕ -erlazioa [+persona] den subjektuak eragotz dezakeela. Proposamenaren beste ondorio bat hau da: Artiagoitia (2000: 55-6) lanean aditzera ematen denaren kontra, DS-ren barruko jabetza-genitibo osagarriak ez daudela izenaren ondo-ondoan, goragoko posizioan baizik.

Nire abiapuntua edo oinarria aurreko zenbait lanetan (Artiagoitia 2002, 2004, 2008) garatu dudana determinatzaile-sintagmaren egitura izango da, honela laburbil daitekeena:

- (1) euskarazko determinatzaile-sintagmaren egitura²
 $[_{DS} [_{POSS} [_{QS} XP [_{FS} [_{IS} I] \dots Adj] Q] Pos] D]$
 (non XS = neurri sintagmak eta QSak, numeralak barne)
- (2) a. liburu hauek = $[_{DS} [_{IS} liburu] [_{D} hauek]]$
 b. liburu bi hauek = $[_{DS} [_{QS} [_{IS} liburu] [_{Q} bi]] hauek]$
 c. {hainbat, kutxa bete} liburu = $[_{DS} [_{QS} [_{XS} \{hainbat \dots\}] [_{IS} liburu] [_{Q} \emptyset]] [_{D} \emptyset]$
 d. bost liburu(-ak) = $[_{DS} [_{QS} [_{QS} bost] [_{IS} liburu]] [_{D} (-ak)]]$

Egitura honetan izenaz gain D eta Q buru funtzionalak aurkitzen ditugu,³ adjektiboak, halakorik izatekotan, IS osagarriaren ondoren ageri diren buru funtzionaltzat har daitezke Cinque (1994)-Scott (2002) ikuspegiari jarraituz edo IS-ri egindako buru-adjunkzioztat. *Posesibo* burua, berriz, artikulu honen gai nagusia da.

Artikulu honela atondu dut: lehen atalean euskarazko genitiboek posesiboen tipologia duten lekua aztertuko dut, funtsean $[DS + deklinabide-atzizkia]$ egituradunak direla esateko. Bigarren atalean, genitiboen agerreraren eta banaketaren aurkezpen xumea egingo dut. Hirugarren atalak, berriz, erakutsiko du IS soil edo biluzietan osarriaren interpretazioa duen genitibo bakarrarentzako lekua baino ez dagoela. Laugarren atalak, bere aldetik, proposamenaren muina garatuko du: hainbat argudiok erakutsiko duten moduan, DS genitiboek

* Haren jakinduria zabala ez ezik, Beñatek berezkoak dituen jendetasuna eta dotorezia ere eredu izan dira beti niretzat. Horregatik, ohore handia da omenaldi honetan parte hartzea. Honako hau Artiagoitia (2009) lanaren laburpena da eta EHU07/13 eta FFI2008-05135/FILO ikerketa proiektuen babespean egin da.

¹ *Posesibo* edo *Kmz* (Szabolcsi 1994, Ihsane 2001, Kiss 2002) eta *F* ere (Pearce 1998) erabiltzen dira.

² Ikus Oyharçabal (2006) antisimetriari jarraitzen dion euskal DS-ren ikuspegi baterako.

³ Eguren (2006) Num eta Q bereizten ditu; nik biak parekotzat jo izan ditut; nolahi ere, nire iritzia da (Artiagoitia 2006), bereizketarik bada, euskaraz NumS horrek QS-ren gainetik behar duela.

IS-tik atera eta QS-ren gainera dagoen espezifikatzaileko mugida egiten dute, espezifikatzaile anitzeko konfigurazioa sortuz.

1. Euskarazko genitiboen ezaugarriak

Kokatze aldera, euskarazko jabetza-genitiboen azterketa konparatiboari ekitean, komeni da zenbait egiaztapen argi uztea:

- a. DS arruntetan euskarak ez dauzka bi jabetza-genitibo edo posesibo;
- b. euskal genitiboak ez dira determinatzaile mota bat;
- c. izenordain posesiboek ez daukate *sendo/ahul* partiketaren araberako formarik;
- d. euskarazko genitiboak *DS + kasua* itxurakoak dira;
- e. *-ko* leku-genitiboarekiko aldea kategoriala da neurri batean.

a. *DS arruntetan euskarak ez dauzka bi jabetza-genitibo edo posesibo*. Posesiboen tipologian, sarritan sintetikoak eta perifrastikoak berezi ohi dira, hizkuntza berean (esaterako ingelesez) biak batera gauzatzen direlarik:

- | | | |
|-----|------------------------------------|--------------------------------|
| (3) | a. Rome's destruction of the enemy | (genitibo saxoia = sintetikoa) |
| | b. the destruction of the enemy | (of-genitiboa = perifrastikoa) |
| | c. the enemy's destruction | |

Eta ez hori bakarrik, (3b-c) adibideek erakusten dutenez, izenarekin erlazio tematiko berdina daukan argumentua berdin ager daiteke batera zein bestera.⁴ Antzera gertatzen omen da alemanez (Lindauer 1998), subjektuak eta objektuak, biek batera, genitiboan agertzeko aukera dutelako berezitasunarekin.⁵

- | | | |
|-----|---|----------------------|
| (4) | a. Kolumbus Entdeckung <i>Amerikas</i> | |
| | b. Kolumbus Entdeckung <i>von Amerika</i> | |
| | (Colonen Amerikaren aurkikundea) | (Lindauer 1998: 122) |

Genitibo mota bi hauek zergatik diren zilegi, bakoitzak zein posizio hartzen duen izen-sintagmaren barnean, eta zein kasu motari dagokion, eta abar sarritan izaten da eztabaida-iturri; Lindauer-ek (1998), esate baterako, kasu genitiboaren erkaketa posizio bakarrera murrizteko ahaleginean izenaren aurreko genitiboa funtsean adjektibo-sintagma dela aldarrikatzen du. Erromantze hizkuntzetan, bestalde, genitibo sintetikoa izenordainetara mugatzen da eskuarki, baina hor ere nabarmena da genitibo biek kokapen bana dutela (D gunearen inguruan bata eta izenaren ostean bestea) eta izenaren osagarriak ere gauzatu ahal direla izenordain posesibo modura (Cinque 1980, Longobardi 2001).

Euskaraz, ez dago horrelako bikoizketarik. Dauden genitiboak, posesiboari, subjektuari eta osagarriari dagozkienak, antzera gauzatzen dira eta itxura berekoak dira denak:

- | | |
|-----|--|
| (5) | a. Bonaparteren euskalkien sailkapena |
| | b. {Colonen, Euskal Herriko arrantzale batzuen} itsasontziak |
| | c. Artetaren Pitxitxiren erretratua |

⁴ Halere, bada "affectedness constraint" deritzon murriztapen bat. Ikus Longobardi (2001: 564-hh).

⁵ Murriztapen desberdinak daude, hala ere, baterako eta besterako. Genitibo prenominala gaurko alemanean izen berezietara mugatzen omen da; ikus baita De Wit and Schoorlemmer (1996) ere.

osagarritzat hartzen duen deklinabide-atzizkitzat hartzeak dirudi arruntena. Deklinabide-atzizki hori hemen kasu-markatzat hartuko dut nolabaiteko tradizioa daukan ikuspegi bati jarraituaz (Goenaga 1984, 1991, 1997, 2003; Eguzkitza 1993, 1997; Elordieta 2001). Batetik, argumentu-sare osoa duen perpaus bat eta izen-sintagma bat erkatzeak iradokitzen duelako jabetza-genitibo perpausetako ergatibo eta absolutibaren kide dela:

- (10) a. Zumetak bere azken artelanak erakutsi ditu.
b. Zumetaren bere azken artelanen erakusketa

Bestetik, *-ko* atzizkiak ezin duelako jabetza-genitibodun osagarririk hartu, ergatibo, absolutibo eta datibo kasu-markadunik hartu ezin duen moduan:

- (11) a. Zumetak/ etxeak + *-ko* → *Zumetako/*etxeako
b. Zumeta/ etxea + *-ko* → *Zumetako/ *etxeako
c. Zumetari / etxeari + *-ko* → *Zumetariko / *etxeariko
d. Zumetaren / etxearen + *-ko* → *Zumetarenko / * etxearenko

Ezaugarri honek, beraz, jabetza-genitibo kasu-markekin berdintzen du.

e. *-ko leku-genitiboarekiko aldea kategoriala da neurri batean*. Denok dakigunez, bada bigarren genitibo bat euskaraz, *-ko* atzizki edo postposizioarekin egiten dena:

- (12) *Gasteizko* Artium museoa

Jabetza-genitiboaren eta leku-genitiboaren arteko aldeak ez dauka zerikusirik lehenago aipatu dugun *sintetiko/perifrastiko* bereizketarekin, beste zerbaitekin baizik. Goenaga (2003) eta Artiagoitia (2006) lanetan oinarrituz, honela laburbil daiteke genitibo bien arteko lan banaketa:

- (13) *Euskarazko DS-ren barneko osagaiak*
a. DS kategoriako argumentuek *-(r)en* marka hartu ohi dute;
b. Gainerako (PostS, IS, QS, Adb-S, KonpS...) osagai adnominalek *-ko* atzizkia hartu ohi dute.

Hots, (10)-eko bikoteak gogora dakarren moduan, DS kategoriako izenaren argumentuek *-(r)en* hartzen dute; *-ko* ikusten dugu gainerakoan. *Gainerakoan* honek denetariako egoerak ostentzen ditu eta ez da harritzekoa anabasa horretan gramatikalariek egitura batzuk beste batzuen kalterako nabarmendu izana. Esaterako, Eguzkitzak (1993) azpimarratu du *-ko* genitiboak izen-sintagma barneko adjuntuak sortzen dituela baina ez subjektu edo osagarri argumentuak:

- (14) Arabako zortzi urteetako zapone oneko ardoa (Eguzkitzaren 42. adibidea)

Honetan bat dator, itxura baten behintzat, lehenago beste batzuek (cf. Goenaga 1980, de Rijk 1988, 1993) diotenarekin: *-ko* atzizkia DS-ren barruko edozein postposizio-sintagmari gehitzen zaiola, edo, termino tradizionalagoetan, *adizlagunak izenlagun* bihurtzen dituela. Baina (adizlagunetatik datozen) *izenlagun* guztiak ez dira berdinak:

- (15) a. Eskolara hurbildu zara / Eskolarako hurbilketa⁷
 b. Segoviatik ihes egin nuen / Segoviatiko ihesa

(14)-ko *-ko* izenlagunak, adjuntuak diren neurrian, errepikakorrak izan badaitezke ere, ez da berdin gertatzen (15)-ekoekin. Izan ere, *eskolara* eta *Segoviatik* aditzek hautatutako Post-S osagarriak badira, antzera esan genezake, izenaren alorrean, *eskolarako* eta *Segoviatiko* sintagmez.⁸ Areago: (13)-ko bereizketa zuzena dela Eguzkitzak berak aipatzen dituen perpaus osagarriek (ikus haren 20. oinoharra!) berresten dute: berauek ere *-ko* hartzen dute izenaren osagarri direlarik.⁹

- (16) a. [Elvis bizirik dagoela] entzun dut. b. [E. bizirik *dagoelako* zurrumurrua] entzun...

Beraz, *-ko* sintagmak izenaren osagarri ere izan daitezke.

Bestalde, Zabalak (1999) eta, bereziki, Goenagak (2003) diotenez, badira *-ko* itxurako osagarria beren-beregi eskatzen duten izenak. Goenagak *eskola*, *laborategi ikasle/irakasle* bezalakoak aipatzen ditu:

- (17) fisikako {ikaslea, irakaslea, laborategia, eskola, departamendua }

Alabaina, hizkuntzalari biek ontzat ematen dute *-ko* osagarriok halako zapore *generikoa* dutela, interpretatu ohi direla determinatzailerik gabeko izen-sintagma bat balira bezala, IS osagaia balira bezala hain zuzen.¹⁰ Beraz, DS osagairik ezean, normala da *-ko* agertzea; (13)-ko banaketak zuzena dirudi.

Azkenik, nolakotasunezko izenlagunetan ageri den *-ko* aipatu behar dut:

- (18) a. adineko jendea (= [IS I] + *-ko*) b. aho biko ezpata (= [QS IS-Q] + *-ko*)
 c. bihotz oneko laguna (= [FS/IS I-Adj] + *-ko*)
 d. *bihotz on honetako laguna ([DS I-Adj-D] + *-ko*)

Eguzkitzak (1993), Trask-en (1985) lan baten haritik, eta Zabalak (1999) iradoki dute (18)-ko adibideetan *-ko* atzizkia hain zuzen ere DS ez den osagai bati gehitzen zaiola; bestela esanda, osagai hori IS hutsa (=18a), QS (=18b) edo [I-Adj] osagaia (=18c) (alde batera utzita nola aztertzen den) izan liteke, baina DS oso bat (=18d) inondik inora ere ez. Goenagak (2003), hala ere, zalantzan ipini du ikuspegi hau eta zenbait nolakotasunezko izenlagunetan DS-raino islatzen den egitura bat badela argudiatu du. Hona hark emandako adibide bat (ibidem: 283):

- (19) *kolore honetako* koadernorik ez dut aurkitzen (= [DS kolore hau] + *-ko*)

⁷ Dakigunez, inesiboaren kasuan arrastorik ez da gaurko euskaran:

(i) a. Donostian egon nintzen b. Donostiako egotaldia
 Baina *-n* hori nabarmena da galdetzailean gutxienez (cf. *no-n-go egotaldia?*). Hartara, ohikoa da *Donostiako* bezalakoetan *Donostiango* ezkututzen dela esatea.

⁸ Hori bai, azterkizun da Post-S osagaien kasuan *zergatik* den beharrezkoa *-ko* eranstea

⁹ *-en* ere posible da, eskuineko estraposizioaren ondorioz konpletiba arrunta posible den era berean:

(i) a. [Elvis bizirik *dagoen* zurrumurrua] entzun dut. b. zurrurrua entzun dut [E. bizirik *dagoela*]

¹⁰ Goenagaren arabera, *fisikaren irakaslea* posible da, baina beste zerbait esan nahi du, irakasle horrek fisika zientzia osoa, hasi eta buka, azalduko balu bezala.

Nik neuk ez dut hain argi honelako izenlagunen azpian egiazki DS eta ez Post-Sintagma osagai bat ulertu behar ote den; baina jo dezagun Goenagak arrazoi duela: bistan da honelako (=19ko) ustezko DS osagaiak adjunktuek direla, eta ez izenaren argumentuak. Beraz, Goenagari (19)-ko izenlagunetan arrazoa emanda ere, ez dugu (13)-ko ikuspegia zertan aldatu: DS kategoriako adjunktuek ere (hots, argumentu ez direnek) *-ko* hartuko dute, eta kito; alegia, DS kategoriako nolakotasunezko izenlagunak bete-bete sartzten dira bigarren multzoan.¹¹

Laburpen modura, esan liteke (13)-ko orokorpenaren argitara genitibo bien arteko lan banaketak kategoriatan banaketa bat islatzen duela funtsean: DS vs beste kategoriatan guztiak; edo kasurik txarrean, kategoriatan eta harreman tematikoaren banaketa islatzen duela: DS argumentuak vs gainerako osagaiak. Banaketa hau, dena dela, oso ezaguna da gramatika teoriarik: determinatzaile-sintagmek duten kasu abstraktuaren beharra (*Kasu Iragazkia* funtsean) gogora dakarren banaketa da hain zuzen ere.¹²

2. Genitibo sintagmak DS-ren barruan: proposamen baterantz

Atal honetan, jabetza-genitiboaren hurrenkeraren berri eman nahi duen proposamena aurkeztuko dut, geroxeago, laugarren atalean, egokituko dudana. Nolanahi ere, jabetza-genitiboaren azterketa egokirako, badirudi egoera guztiak hartu beharko ditugula aintzat: jabetza-genitibo bakarra dagoenean eta, ohikoa ez bada ere, bi daudenean. Jabetza-genitibo bakarra dagoelarik, itxura batean nahiko goian aurkitzen dugu:

- | | | |
|------|-----------------------------------|---------------------------------|
| (20) | a. Jonen atzoko txistea | b. Mirenen bi autoak |
| | c. Sanzen atzera egiteko erabakia | d. Libanoren su-etenerako plana |

Hots, badirudi posesibo arrunta (20a-b) *-ko* modifikatzaileen eta zenbatzaileen ezkerretara kokatzen dela; berdin esan liteke jabetza-genitiboaren subjektu delarik (20c-d), modifikatzaile horiek osagarri (20c) izan edo ez (20d).

Arestiko adibideetan, *-ko* sintagmak jabetza-genitiboaren ezkerretara ere ager daitezke, baina ñabardurekin:

- | | | |
|------|---------------------------------|-----------------------------------|
| (21) | a. atzoko Jonen txistea | b. atzera egiteko Sanzen erabakia |
| | c. su-etenerako Libanoren plana | |

Ñabardura da (20)-eko adibideak nolabait neutroak diren bitartean (21)-koek multzo zabalago batera bidaltzen gaituztela edo, bestela, foku-interpretazioa eragiten dutela: *atzoko Jonen*

¹¹ De Rijk-ek (1991), berriz, nolakotasunezko izenlagunetan beti [PostS] + *-ko* egitura ikusten zuen.

¹² Gaurko euskara idatzian *-ko/-ren* alternantziak ikusten dira eta nekezago da hor egiazko lan banaketarik sumatzea. Esaterako, *Berria*-ko (2008/08/28) artikulua beretik daude jasota honako biak:

- | | | | |
|-----|----------------------------|---|---------------------------|
| (i) | Athleticeko entrenatzailea | / | Athleticen entrenatzailea |
|-----|----------------------------|---|---------------------------|

Egunkari berean ez dira falta izaten “X saioaren /saioko aurkezlea” bezalako bikoteak. Honen aurrean, autoritatearen argumentua datorkit burura; hona zer dioen Mitxelena *Urlia eta Sendia Galeko kitzikariak* adibidearen harira: “Guztiok badakigu, arteka-marteka ahazten bazaigu ere, *-(r)en* dela atzizki zuzen bakarra horrelakoetan. Euskalki guztietan, nik uste, labur-surrean ez gabiltzanean elkarte moldez jokatu, *artoaren ereilea* esaten da, *kateen birrintzailea*, *kristauen salataria*, eta abar eta abar” (Mitxelena 1988: 172). Bestetik, ez da idatzita dagoen oro ontzat eman behar: egunkari bereko ale batean (2008/10/23), prostituzioaren inguruko txosten baten egilea auzuetan, hura *azterlaneko egile* (sic) dela adierazten da. Horrelakoak ez ditut gramatikaltzat hartuko edo, kasurik txarrean, *nongo* parafrasi bat ezkututzen dutela suposatuko nuke. Oro har, ontzat emango dut (13).

txistea-k iradokitzen du badirela Jonen txistea ez diren atzoko beste txiste batzuk; (21b)-n ere aditzera ematen da izan litezkeela atzera egiteko beste erabaki batzuk Sanzek hartutakoak ez direnak eta, zeharka, erabakia Sanzena eta ez beste batena dela azpimarratzen da; (20c)-k, agian adibiderik argiena, iradokitzen du Libanoren planaz gain beste plan batzuk direla. Nolanahi ere den, ñabardura hauek ikusita, argi dago (20)-ekoak direla hurrenkera arruntak, eta (21)-ekoak –*ko* sintagmen ezkerretarako mugidaz sortutakoak.¹³

Genitiboaren eta (izenaren aurreko) zenbatzaileen arteko hurrenkeraren gaira bueltatzen bagara, argi eta garbi ikusten da lehenak zenbatzaileen aurretik behar duela, zeinahi interpretazio duelarik:

- (22) a. irakaslearen {hainbat, hiru} erretratu b. * {hainbat, hiru} irakaslearen erretratu

Jabea, subjektua eta osagarria onartzen dituen *erretratu* bezalako izen baten kasuan, *irakaslearen* berdin izan liteke hiruretarik edozein. Ohikoa den bezala, IS eta AS osagaien paralelismoa azkeneraino eramaten badugu, pentsatu beharrekoa da (22a) adibidearen eratorpena honelako zerbait izango dela:

- (23) [DS ... irakaslearen_i [QS {hainbat, hiru} [IS ...t_i ... erretratu]] ... D]
(non t_i = subjektu, objektu edo posesibo-jabe posizioa den)

Hots, izenaren argumentua izan edo egiazko posesiboa izan, genitiboa IS islapenaren barnean sortuko litzateke (Schoorlemmer 1998, Longobardi 2001, Alexiadou et al. 2007) eta, ondoren, goragoko posizio batera mugituko litzateke. Testuinguru honetan hauxe egiaztatzen dugu: subjektu eta osagarri diren jabetza-genitibo bi daudelarik ere, murriztapen berdinekin egiten dugula topo eta biak agertzen direla deslekuan, zenbatzaileen ezkerretara, eta are –*ko* sintagmen ezkerretara:

- (24) a. Picassoren zezenaren lau irudiak
b. Arestiren Espriuren poemen zenbait itzulpen
c. Peruren Mirenen igerilekuko argazkia (Zabala 1999: 150)¹⁴
[d. Europako ministroen familiako argazkia (ibidem: 129)]

Bi jabetza-genitibo ez dira ohikoak, noski, baina bi genitiboren bitxitasuna gainditu daiteke testuinguru egokian; ezinezkoa da, ordea, zenbatzaileak genitiboaren aurretik kokatzea.

¹³ *Scrambling* itxura du mugida honek. Anbiguitatea saihestea ere izan dezake helburutzat:

- (i) a. Liga Arabiarrek erabat babestu du *su-etenerako Libanoren plana*. (Berria, 2006/08/08)
b. Liga Arabiarrek erabat babestu du *Libanoren su-etenerako plana*.

Oker ez banago, (ib) adibidea neutroagoa da, baina [*Libanoren su-etenerako*] *plana* interpretatzeko arriskua dago, plana norena den argitu gabe. Kazetariak, (ia) hautatuaz, argitasuna lortzen du, baina garbi uzten ere su-eten horretarako Libanoren plana ez diren beste batzuk badirela (Estatu Batuen eta Frantziarena, esaterako, berria hedatu zen unean).

¹⁴ Eguzkitzak (1993) honakoa ematen du hurrenkera normaltzat:

- (i) Riberaren El Pradoko eskalearen irudia (S-Adjunktua-O-I)

Nire informatzaileek, hala ere, nekez hartzen dute *El Prado* irudiaren kokapentzat, eta eskalearen kokapena dela ulertzera jotzen dute. Puntu honetan Zabalaren datuek fidagarriagoak dirudite.

Laburbilduta: subjektua eta osagarria ageri dituen determinatzaile-sintagma batean biek zenbatzaileen ezkerretara behar dute, QS-ren gainera. Bestetik, *-ko* adjunktuen kokapen arrunta osagarriaren eskuinera eta izenaren ondoan da, (24c-d) adibideen arabera behintzat. Datuok pentsarazten digute bai genitibo subjektuak bai genitibo osagarriak beren kasua nahiko goian, IS osagaitik kanpo eta QS-ren gainera dauden posizio sintaktikoetan, erkatzen dutela. Arestiko (23)-rekin batera, honelako eratorpenetan pentsatu behar dugu orduan:

- (25) a. Picassoren_i zezenaren_j [QS lau [IS t_i t_j erretratu]]-ak
 b. [Arestiren_i Espriuren poemen_j [QS zenbait [IS t_i t_j itzulpen]] ageri dira ...
 c. Peruren_i Mirenen_j igerilekuko [IS t_i t_j argazki]-a
 d. Europako ministroen_i familiako [IS t_i argazki]-a

Bai osagarria bai subjektua euren jatorrizko posiziotik aldentzen badira, galdera berehala sortzen da: nora mugitzen dira? Posizio sintaktiko berdinerara mugitzen dira ala buru biren espezifikatzaile banatara mugitzen dira?

Galdera hauei ekin aurretik, baina, genitiboaren bigarren agerrera bat iradokitzen duen beste datu bat gehitu behar da: datua IS biluziek ematen digute. Hara:

- (26) a. Epaileak Miren *errudun* (*a, *bat) jo du.
 b. Amaia *arduradun*(*a, *bat) jarri dute bulegoan.

Letra etzanez adierazitakoak izen predikatuak dira, baina IS osagai garbiak inolako determinatzaile onartzen ez duten neurrian. Halakoetan, zilegi da jabetza-genitiboa:

- (27) a. Epaileak Miren *hilketaren* errudun jo du.
 b. Amaia *erdarazko testuen* arduradun jarri dute bulegoan.

Baina jabetza-genitibo hauek ezin dira QS baten gaineko posizio batekin lotu, izen predikatuok printzipioz IS mailaraino baino ez direlako proiektatzen. Beraz, honako baieztapenak izango dira gure abiapuntua:

- (28) a. Euskarazko osagarri eta subjektu genitiboak DS-ren barnean QS-tik gora mugitzen dira;
 b. bada beheragoko beste genitibo posizio bat IS biluzietan.

Hurrengo ataletan D eta Q artean datzan *posesibo* buruarekin lotuko ditut osagarri eta subjektu genitiboak, baina aldi berean IS-ren barneko genitibo bat, berezkoa printzipioz, badela ere aldarrikatuko dut. Bigarren honetatik hasiko naiz.

3. IS biluziek jabetza-genitibo bakarra izan dezakete

Datuak argi eta garbi erakusten dute IS biluzietan jabetza-genitibo bakarra dela posible, eta beronek osagarriaren interpretazioa daukala, ezinbestean eduki ere. Hiru IS mota aztertuko ditut jarraian: euren predikatu izaeragatik IS soil modura ageri direnak; predikatu izan ez arren, erlaziozko izena den eta artikuluri gabe ageri den *berri* izena; eta azkenik *-tzat* atzikiaren osagarri soilak.

3.1. IS predikatuak

Predikatu argiak diren IS osagaietan argi eta garbi ikusten da genitiboa zilegi dela, baina beti ere izenaren osagarriari dagokion interpretazioarekin:

- (29) a. Jonen beldur naiz (cf. Joni beldur diot)
 b. ... egizue hau nire oroigarri (= ni oroitzeko)
 c. Ciberria Jaialdia hasi berri da Bilbon, kultura zibernetikoaren erakusgarri (= kultura zibernetikoa erakusteko)

Jonen beldur predikatuan Jon da beldurraren iturria edo gaia, ez genuke Jonek duen beldurra inoiz ulertuko. Mezako *nire oroigarri* formularen ere *ni oroitzeko* ulertzen dugu, eta (29c) adibidean antzera dira kontuak. Genitibo horiek osagarri direna *bere burua* anafora bihurkaria hor posible izateak erakusten du:

- (30) a. neure buruaren beldur naiz
 b. ... egizue hau zeuen buruaren oroigarri
 c. Bere idazlan guztiak goraiatu zituen, bere buruaren erakusgarri.

3.2. Berri izenaren berri

Berri izena interes handikoa da osagarriarekin bai baina determinatzailearik gabe argumentu gisa funtzionatzeko gaitasuna daukaten izen bakarretarikoa delako “x-ren berri izan, jakin, eman, entzun, ...” bezalako aditz-sintagmetan. Hona hemen literatur tradizioa bi adibide:

- (31) a. Nork ez du *Irlanda gaxoaren berri*? (Ldi IL – 167)
 b. Badaki ordea Gorostiaga jaunak *bere buruaren berri* jakiteko, euskal izaera izkutuaz jabetzeko, badagoela lasterbide bat, jakintza bidea baino eroso eta atseginagoa: euskal poesiaren bidea (KM MEIG II – 45)¹⁵

Guri, nolana ere, honexek ardura digu: determinatzailearik gabeko *berri* guztien genitiboak *berri* horren edukia edo gaia ematen digu, ez berriaren emalea edo subjektua. Eredu honi jarraitzen ez dioten adibideak zeharo ezgramatikalak dira:

- (32) a. ETBk El Correo-ren berri eman zuen. b. ETBk El Correo-ren berria eman zuen.
 c. Lehenik, ETB-ren suetenaren berria entzun nuen.
 d. * Lehenik, ETB-ren suetenaren berri entzun nuen.

Oker ez banago, (32a) adibidearen interpretazio bakarra da ETB-k El Correori lotutako edo El Correo gaitzat hartutako informazioaren bat eman zuela, baina ez El Correoren beraren berri bat eman zuenik; (32b) adibidea, oster, anbigua da eta goiko irakurketa ez ezik ETBk El Correo emandako berria, El Correo egile edo iturritzat duen berria, eman zuela ere uler daiteke. Era berean, ohikoa ez bada ere, *berri* izenak onartzen du aldi berean subjektua eta osagarria gauzatzea, baina horretarako ezinbestekoa da egitura DS-raino proiektatzea (=32c); IS hutsezko

¹⁵ *Berri*-ren argumentu dena bi faktorek bermatzen dute: *berri* ez den beste izen batek DS islapena behar luke; eta, areago, *berri*-k berak honela funtziona dezake beste modifikatzailearen bat gehituz gero:

- (i) a. *Etzepareren bizitzaren berri urri bezain zehatzak* eman dizkigute, beste zenbaiten artean, Jaurgainek, Huartek, Urkixok, Gil Reicher andreak... (KM MIH – 282)
 b. Huts egin nuelako damua *han esandakoen berri zehatz honek* ez dit larritu besterik egin (KM MEIG III – 69)

egituran (=32d) jabetza-genitiboak *berri*-ren osagarria baino ezin du izan. Hartara, bigarren froga bat badugu pentsatzeko ISetan jabetza-genitibo bakarra dela posible, eta berau osagarriari dagokiola.

3.3. Prolatiboaren froga

Ezaguna denez (Euskaltzaindia 1985, 1993), prolatiboa berezi samarra da deklinabide-atzizkien artean, berau dugulako epentesirik eta determinatzailearen aztarnarik ageri ez duen bakarra:

- (33)

{	a. laguntzat / * lagunetzat / * lagun bat(e)tzat / * lagun hautzat b. lagun handitzat... c. erotzat	}	hartu naute
---	---	---	-------------

Alde horretatik, esan liteke *-tzat* postposizioak osagarritzat IS soilak hartzen dituela, baita AdjS zein [I-Adj] osagai-motak ere. Honek aukera ematen digu berriro ere jabetza-genitiboetarik zein den zilegi, ezein bada, ikusteko. Ostera ere, osagarriarekin egiten dugu topo. Ikus, bestela, ondoko perpausak:

- (34) a. Hilketaren egiletzat jo zuten, baina errugabea zen.
 b. Eskuan daukazun hori Mirenen {oroigarrizat, erretratutzat} hartu dut.
- (35) a. Ikerlan hori erronkarieraren deskribapen egokitizat jo daiteke.
 b. *Ikerlan hori Mitxelenaren erronkarierarekn deskribapen egokitizat jo daiteke

(34)-eko adibideetan, aditzetik eratorritako izenek argi asko erakusten dute genitiboa nolabait aditzaren jatorrizko barne argumentuari dagokiola. *Oroigarri* eta *erretratu* izenek zantzu garbia ematen dute: (34b)-en ez dugu ulertzen eskuan dagoena Mirena den oroigarria edo erretratua denik, Miren oroitzen edo erretratutzen duen zerbait baizik. Bestalde, (35)-ko adibideetatik ondorio berdintsua ateratzen dugu: aditzetik eratorritako IS soila prolatiboaren osagarri delarik, hiztunek osagarriari dagokion jabetza-genitiboa onartu arren baztertu egiten dute subjektua *ere* agertzea. Beraz, genitibo subjektua *eta* osagarria ezinezkoak dira IS biluzietan.

4. DS eta kasu genitiboa: espezifikatzaile anitzeko proposamenaren garapena

Atal honetan jabetza-genitiboen azterbidea garatuko dut: lehendabizi, jabetza-genitiboen igoeraren aldeko argudioak xehetuko ditut eta jabetza-genitibo biak, subjektua eta osagarria, *posesibo* buruaren espezifikatzaile anitzeko konfigurazioan daudela proposatuko dut. Ondoren, erkatze anizkuneko egitura horren aldeko argudioak aurkeztuko ditut: lehenik erakutsiko dut nola nire proposamenak bat egiten duen Richards'en espezifikatzaile anitzeko teoriarekin eta nola egitura horrek izen-sintagmaren barneko hurrenkerez Eguzkitzak emandako datu batzuk hobeto interpretatzen laguntzen digun; beste argudioa, indartsuagoa, Pertsona-Kasu Murrizketaren inguruko datuek emango digute: jabetza-genitibo bi izatea ez da posible biak [+pertsona] direlarik eta datu horrek berak salatzen du biak buru beraren kontra erkatzen dutela euren pertsona-tasuna.

4.1. Genitiboak QS-ren gainean daude

Dagoeneko egiaztatu dugu genitibo bakarra dela posible IS barruan, eta zilegi direla bi DS barruan. Eta argitu ere argitu dugu subjektuari eta objektuari dagokien gune sintaktikoak QS gainetik behar duela. Aurreko adibide esanguratsuenak errepikatuta ematen ditut:

- (36) a. irakaslearen {hainbat, hiru} erretratu
 b. [DS ... irakaslearen_i [QS {hainbat, hiru} [IS ...t_i ... erretratu] ... D]
 c. Picassoren zezenaren lau irudiak
 d. [DS ...Picassoren_i zezenaren_j [QS lau [t_i t_j irudi]] ... [D -ak]]

Igoeraren aldeko argudio nagusia horixe dugu hain zuzen: izenaren argumentuak ISTik kanpo eta QS-ren gaintetik agertzen direla. Erantzun beharreko galdera haue da: zein dira genitibo bi horiek biltzen dituzten islapenak? Bat edo bi dira? Hasteko, QS-ren gaineko buru funtzional baten existentzia justifikatzen ahaleginduko naiz; ondoren genitibo biren kokapena zein izan daitekeen azalduko dut.

Batetik, hizkuntzen arteko ebidentzia aipa daiteke D eta Q arteko *posesibo* burua justifikatzeko: zehaztutasuna eta posesiboak lotuta ez dauden hizkuntza askotan, genitiboak determinatzailearen azpitik (eta QS-ren gaintetik) kokatu ohi dira:

- (37) a. katalana: les seves nouvelles de Nabokov (Picallo 1991: 284)
 b. italiara: il mio libro (Schoorlemmer 1998: 58)
 c. bulgariera: edin negov prijatel (ibidem: 59)
 bat bere lagun
 ‘bere lagun bat’
 d. hungariera: (a) Mari kalap-ja-i (Szabolcsi 1994: 180)
 art Mari.nom kapela.kmz.pl
 ‘Mariren kapelak’
 e. maoriera: tā Hōne patu-nga o te wahine (Pearce 1998: 427)
 art .gen hil-keta gen art andre
 ‘Honeren andrearen hilketa’

Zehaztutasuna eta posesiboak elkarren eskutik doazen hainbat hizkuntzatan, posesiboari emandako azaleko kokapena, berriz, D gunea edo [espez, D] gunea izaten da. Izenordain posesiboek D gunea bete ohi dutela esaten da; gainontzeko sintagma genitiboek bigarrena:

- (38) a. ingelesa: Mary’s (*the) book/ my (*the) book
 b. germaniera: (*die) Kolumbus Entdeckung von Amerika (Lindauer 1998: 122)
 ‘Kolumbusen Amerikaren aurkikundea’
 c. gaztelania, frantsesa: (*los) mis tres libros, (*les) mes trois livres

Hala ere, halakoetan posesiboak D-ren ingurura beharagoko posizio batetik igotzen direla esan ohi dute ikertzaileek (Picallo 1994, Cardinaletti 1998, Schoorlemmer 1998, Alexiadou et alii 2007). Hizkuntzetan barrena, beraz, posesiboak D-ren azpiko lehen buruari lotuta ageri dira.

Euskararen barnetik, ez da hain erraza *D/DS* eta *Posesibo/PosS* bereizten: nabarmena da jabetza-genitiboa eta determinatzailea zein bere aldetik doazela eta genitiboa zilegi dela D gunea hutsik dagoenean (cf. hasierako 6b-c adibideak), artikulurik edo erakuslerik gabe. Jabetza-genitiboa QS-ren gaintetik dagoenez, honek, printzipioz, bidea zabaltzen du jabetza-genitiboa D-rekin zerikusirik ez duen buru baten espezifikatzailean dela esateko:

- (39) [DS [XS nire [QS {bost, hainbat} liburu [Q Ø]] X] [D Ø]] X = posesibo

Zeharkako datu horrek berrespena aurkitzen du juntaduran, zilegi baita posesiboa eta IS osagaiak biltzen dituzten baina determinatzaileak kanpoan uzten dituzten juntagaiak aurkitzea:


- (40) a. [[zure liburu] eta [ene artikulu]-ak] ekarri ditut (B. Oyharçabal, k. p.)¹⁶
 b. Atzo aipatu zenituen [[zure bi liburu] eta [nire hiru disko]-ak] desagertu egin dira.

Datuok ez dira agian hain erabakigarriak, baina euskararen barnean ere posesibo-sintagma eta DS bereiz daitezkeelako frogatzat hartuko ditut.¹⁷

Aurreko ebidentzia edo arrazoi hauek guztiak ikusita badirudi euskarazko DS-etan bi genitiboren agerrera honelatsu azaldu beharko genukeela:

$$(41) \quad [_{DS} [_{PosS} S, O [_{QS} QS [_{IS} \dots t_s, t_o, I] Q] Pos] D]^{18}$$

Edo diagrama-arbola bat eginda:



Proposamen honek kontu handiz ibiltzea eskatzen du, euskararenak jokabide bitxia dirudien neurrian: batetik, genitibo bikoitzak ezagunak dira literaturan zehar, baina normalean posizio edo konfigurazio sintaktiko bana izaten dute (cf. ingelesa, gaztelania). Areago: bigarren posizio

¹⁶ Nire aspaldiko lan batean aurkitu dut Beñaten adibide hau, haren zorrotasunaren lekuko; hain zuzen ere, bertan egiten nuen proposamenerako problematikoa zen datua eta konpondu gabe utzi nuen.

¹⁷ Froga ahula agian, zeren beste batzuetan jabetza-genitiboa determinatzailearen gainetik dagoela dirudi:

- (i) [zure [bi liburuak] eta [hiru diskoak]]

Ez da kontu berria juntaduraren alorrean datu kontraesankorrak aurkitzea: ikus Goenaga (1991) eta, batez ere, Amundarain (1997: 292-hh & 368-hh) eztabaida baterako. Amundarainek dioenez, juntaduraren ohiko ikuspegian juntagaiak egiazko osagaiak badira ere, beste zenbait kasutan, bereziki izenlagunekin, badirudi partekatutako osagai-segidak juntatzen direla onartu behar dela; (i) adibidea azken tankera honetakoa litzateke nire ustez.

¹⁸ Azterbide alternatiboa subjektua posizio batera eta osagarria beste batera mugitzen direla esatea da, baina, hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, (41)-eko azterbideak dirudi zuzenena.

bat izatea izenaren mugidarekin ere lotu izan da zenbait hizkuntzatan; hona hemen, esaterako, Lindauerren eta De Witen proposamenak germaniera eta neerlandararako:

- (42) a. [Kolumbus [Det \emptyset] [K_{mz}S [K_{mz} Entdeckung]_i... [FS Amerikas t_i [IS t_{sub} t_i t_{osag}]]]]
 “Kolumbusen Amerikaren aurkikundea” (Lindauer 1998: 119)
 b. [DS [Posesibo-S Jans [Pos verwoesting]_i] [NumS van de stad [Num t_i] [IS t_{sub} t_i t_{osag}]]]]
 “Jonen hiriaren suntsitzea” (de Wit 1997: 37)

Hots, hizkuntza bi horietan subjektuak eta osagarriak espezifikatzaile-posizio banatan kasua jasotzea izenaren mugidak egiten omen du zilegi, perpausetan osagarria AS-tik ateratzea aditzaren mugidak zilegi egiten duen bezalatsu (cf. *Holmberg-en orokorpena*, Chomsky 1995). Baina euskaraz, ez dago izenaren inolako mugidarik, berau *in situ* geratzen da, izen-adjektiboan eta zenbatzaileen arteko hurrenkerak agerian uzten duen moduan:

- (43) a. Umearen [Q_P bost [Q' erretratu txiki polit]] hauek
 b. Umearen [Q_P erretratu txiki polit [Q bi]] hauek

Izenaren kokapena ez da aldatzen, eta ez da ezer harrigarrikerik honetan, euskarak morfologia ahula duelako izen-sintagmaren alorrean, numero eta genero komunztadurarik gabea, eta normalean izenaren mugida morfologia aberatsarekin lotu izan da (Cinque 1994, 2003). Hirugarrenez, euskaraz genitibo subjektua eta osagarria, biak, ageri dira bata bestearen ondoren, eta erabat isomorfikoak dira gainera. Eta azkenik, ez dezagun ahaztu euskarak beste posizio sintaktiko bat gordetzen duela genitiborako, IS osagaien barruan, hau ere beste genitiboaren berdina dena.

Beraz, badirudi espezifikatzaile bikoitzeko egitura honek justifikazio enpiriko sendoa behar duela. Horrexerri ekingo diot hurrengo azpiatalean.

4.2. Espezifikatzaile anitzeko egituraren aldeko argudioak

Espezifikatzaile anitzeko egiturak oinarri sendoa daukala esateko, bizpahiru datu multzo aurkeztuko ditut: bateko, Richards-ek (2001) espezifikatzaile anitzeko egituretarako ematen eta aurreikusten dituen datuek bat egiten dute euskarazko jabetza-genitiboen jokabidearekin; hari beretik, Eguzkitzak (1993) SOI eta OSI hurrenkerez emandako datuen berrikuspenak S eta O osagaiak egituraren bateratsu daudela iradokitzen du; azkenik, jabetza-genitibo bi daudenean euren arteko pertsona-murrizketak daudela egiaztatzeak (Pertsona-Kasu Murrizketaren ondorioak sumatzeak azken batean) salatzen du genitibo horiek buru beraren espezifikatzaile banatan daudela.

4.2.1. A-espezifikatzaile anizkoitzen ezaugarriak eta DS-ren barneko hurrenkerak

Aurreko atalean garatu dudan proposamenaren arabera, (41)-ekoa bezalako eratorpen sintaktikoan pentsatu behar da; *posesibo* buruak honelako ezaugarriak edukiko lituzke:

- (44) *posesiboa*, (n-) *ugenitiboa* *, *uq*-tasunak

non * sinboloak tasun sendoa adierazten duen eta, beraz, erakarritako DS argumentuen mugida eragiten duen. Hemen alde batera utziko dut genitibo anizkoitzen jatorriaren eztabaida: *posesibo* buru funtzionalaren ezaugarri parametrikoa den (Ura 1996) parentesi arteko *n* horrek aditzera ematen duen moduan, edo [-interpretagarria] den tasun bat ez ezabatzearen ondorio den (Chomsky 1995), edo besterik gabe, kasu eta pertsona tasunek erkatze unean duten

ezberdintasun orokorraren ondorio den (Boeckx 2003). Besterik gabe jabetza-genitiboak espezifikatzaile anitzeko konfigurazioan daudelako ideia indartzen ahaleginduko naiz.

Euskarazko jabetza-genitibo anizkoitzek Richards-ek (2001) hizkuntzalariak espezifikatzaile anitzeko konfigurazioez esandakoa puntuz puntu jarraitzen dutela litzateke azpimarratu beharrekoa. Richards-ek bai A-mugida bai A'-mugidaren arloko argudio empiriko zabalak ematen ditu buru beraren espezifikatzaile anizkoitzek goragotasunari men egiten diotela eta modu sistematikoan bide zidor kabiratuak sortzen dituztela erakusteko; hots, buru berak sintagma bat baino gehiago erakartzen duenean espezifikatzaile anitzeko konfigurazio batera, gorago dagoen sintagma goragoko espezifikatzailean amaituko du eta beheago dagoenak behegorako espezifikatzailean. Fenomeno hau ez da arrotza euskaraz NZ-mugidan: galdetzaile bi batera aurreratzen direnean, goragotasuna errespetatzen da:

- (45) a. *Nork zer* erranen du orduan? b. *Nork zer* uste duzu errango duela orduan?
 c. **Zer nork* erranen du? d. **Zer nork* uste duzu errango duela orduan?
 [(a-b) adibideak Oyharçabal (1988: 96) lanetik hartuak]

Ikuspegi honetatik, euskarazko jabetza-genitiboa ez da salbuespena; egiaztatu dugun moduan, DS barruko hurrenkera arrunta *SO-X-I* dugu, argumentuen jatorrizko hierarkiari eusten dion hurrenkera hain zuzen:

- (46) a. Picassoren_i zezenaren_j (lau) [t_i t_j erretratu]-ak
 b. Peruren Mirenen igerilekuko argazkia (Peru = egilea edo jabea; Miren = erretratua)

Datuak, hala ere, konplikatukoak dira jabetza-genitiboaren alorrean, zeren SOI hurrenkeren alboan OSI hurrenkerak ikusten baitira, Eguzkitzak (1993: 170) erakutsi zuen moduan:

- (47) a. Cortazar-en Poe-ren itzulpena b. Poe-ren_i Cortazar-en t_i itzulpena

Eguzkitzak topikalizaziotzat jo zuen (47b) adibidea eta, interpretazioari dagokionez, ñabardura hau ezarri zion: Cortazarrek egindakoaz gain badirela Poeren bestelako itzulpenak (“diren Poeren itzulpen guztietatik norena eta Cortazarrena hartzen dugu hizpide” esango bagenu bezala). Gutxi gorabehera, ñabardura interpretatibo hau bat dator lehenago (20-21) adibideez esandakoarekin. Hala ere, mugidaren jomugarekin (Eguzkitzak [espez, D] posizioa zela zioen) ados egon litekeen arren, badira zantzuak (47b)-koa A-motako *scrambling* mugidatik hurbilago dela pentsatzeko, A'-motako topikalizazio-mugidatik baino. Esaterako: jabetza-genitiboko osagarri anaforikoek ezin dute halako mugidarik egin, ohiko topikalizazioan ikusten denaren kontra:

- (48) a. [Velazquezen bere buruaren bi irudiak] ikusgai daude museoan.
 b. *[Bere buruaren_i Velazquezen t_i bi irudiak] ...
 c. Velazquezek bere burua margotu zuen.
 d. bere burua, Velazquezek margotu zuen.

Datu hau garrantzitsua da: batetik iradokitzen du OSI hurrenkera A-motako *scramblinga* izan daitekeela (uztardurarako behar den konfigurazioa desegiten duelako ezin du osagarri anaforikoak goragoko posizio batera mugitu), eta bestetik erakusten du osagarriaren berezko lekua subjektuaren eskuinera izan behar dela, SOI dela hurrenkera arrunta. Alegia, egia da ez dakigula seguru SOI hurrenkeran SO osagaiak buru beraren edo biru biren espezifikatzailean

dauden, baina, zeharka bada ere, datuak egiaztatzen du SO-X-I dela hurrenkera neutroa (Richards-en azterbidetik espero daitekeen moduan) eta O-S-X-I hurrenkera bi eragileren ondorio dela gutxienez: igoera eta *scrambling*.¹⁹

Richards-ek (2001) deskribatzen duen bigarren ezaugarria sotilagoa da: hark dioenaren arabera buru beraren espezifikatzaile banatan dauden zenbatzaileek jatorrizko konfigurazioan zuten besarkadurari eusten diote. Datua nahiko lausoa da oro har eta berdin gertatzen da euskaraz ere. Nolanahi ere, hiztun gehienek jotzen dute honelako DSetan anbiguitateak txartzat edo bitxitzat hartzera:

- (49) a. Hizkuntzalariren baten euskalki guztien deskribapena argitaratuko da liburuan
b. gaurko eskolan ume guztien aktoreren baten aurkezpena ikusi dugu

Alegia, jabetza-genitibo biak batera buru beraren espezifikatzaileetara mugitzerakoan, zenbatzaileen interpretazioa hasierakoaren berdina litzateke: beraz, subjektuak objektua o-komandatzen duenez, interpretazioak honelakoak lirateke:

- (49') a. interpretazio arrunta ($\exists > \forall$): bada hizkuntzalari bat euskalki guztiak deskribatu dituena...
a'. interpretazio nekeza ($??\forall > \exists$): euskalki bakoitzari buruz esan liteke hizkuntzalari batek edo bestek deskribatu duela...
b. interpretazio arrunta ($\forall > \exists$): ume guztiei buruz esan daiteke aktoreren bat edo beste aurkeztu dutela...
b. interpretazio nekeza ($??\exists > \forall$): aktoreren bat bada eta hari buruz esan daiteke ume guztiek bera aurkeztu dutela...

Ohartzekoa da perpaus mailan, subjektuak eta osagarriak buru biren espezifikatzaile bana betetetzen dutenez, anbiguitatea dela arruntena:

- (50) a. Hizkuntzalariren batek euskalki guztiak deskribatu ditu ($\exists > \forall, \forall > \exists$)
b. gaurko eskolan ume guztiek aktoreren bat aurkeztu dute ($\forall > \exists, \exists > \forall$)

Hau da, azaleko posizioa edo jatorrizkoa hartu, litekeena da zenbatzaile batak bestea o-komandatzea edo alderatziz (Horstein 1995), eta hortixek sortzen da interpretazio biren aukera.

Hirugarrenik, Richards-en azterbideak Eguzkitzaren datu bitxi bat azaltzeko aukera ere ematen du: modu marjinalan bada ere, zilegi dira euskaraz posesiboa eta subjektu-osagarria, baina ez da posible halakoetan osagarria subjektuaren aurretik agertzea:

- (51) a. (?) Monzonen Leizarragaren Bibliaren itzulpena (=P-S-O-I)
b. * Monzonen Bibliaren Leizarragaren itzulpena (=P-O-S-I; Eguzkitza 1993: 170)

Eguzkitzak (1993) argudiatzen zuen posesiboa [espez, D] gunean zuzenean sortzeak azaltzen duela zergatik ez den posible P-O-S-I hurrenkera: osagarriak orduan ezin zuen gune hori bete. Baina Richards-en azterbidean analisi gogobetegarriagoa aurkitzen dugu: izan ere, egun ohikoa den moduan (cf. Longobardi 2001, Alexiadou et al. 2007), posesiboa IS-ren inguruko proiektzioan sortzen badugu, batetik espero izatekoa da gogoragotasuna errespetatuaz hurrenkera

¹⁹ Artiagoitiak (2009) OSI hurrenkera *scrambling* motakoa dela erakusteko argudio gehiago ematen ditu, Elordietak (2001) ABS-DAT eta DAT-ABS alternantziak azaltzeko ematen dituenetan inspiratuak.

ezmarkatua [PSO]-I izatea, egiaz den bezala, hiru genitiboak *posesibo* buruaren espezifikatzaile hirukoitzean kokatuta:

$$(52) \quad [_{DS} [_{PosS} \text{Monzonen}_i \text{Leizarragaren}_j \text{Bibliaren}_k \dots [_{IS} t_i t_j t_k \text{itzulpen}]-a]$$

Eta bestetik, badakigu zergatik ez den gramatikala *P-O-S-I hurrenkera: *posesibo* buruak berak hiru argumentuak aldi berean erakartzen baditu, hasierako o-komando erlazioak azaleratu behar direlako goragotasuna errespetatuaz; hots, ezinezkoa da, Richards-en teorian behintzat, hurrenkera okerra deribatzea. Labur esanda, orduan, euskarazko genitibo egiturek Richards-en A-espezifikatzaile anitzeko teoriarekin bat egiten dute: teoria horrek aurreikusten du, bestelako erakarlerik ezean, S eta O osagaiek, buru beraren espezifikatzailean daudelarik, nahiko hurrenkera zurruna izango dutela: ikusi dugun moduan, hala da *scrambling* mugida gertatzen denean izan ezik.²⁰

Azkenik, espezifikatzaile anizkoitzen proposamenarekin bat datorren beste datu esanguratsu bat emango dut: DS-ren hasierako erakusleen portaera. Mendebaleko euskararen bereizgarria da erakusleak sintagma amaierako artikuluekin (hurbila edo ez) komunztatzen duela:

- (53) *Mendebaleko euskara*
 a. hau neska gazteau / hau neska gaztea
 b. hónek neska gazteok / hónek neska gazteak (Artiagoitia 2008)

Artiagoitia (1998, 2008) lanetan hasierako erakusleok [espez, D] posizioan direla eta D posizioako artikuluekin *espezifikatzaile-buru* harremanean direla argudiatu dut. Zuzena bada, eta *scrambling* mugida [espez, D] gunerako dela onartuta, azterbide honek aurreikusten du mendebaleko erakusleak bateragarriak izango direla SOI hurrenkerarekin baina bateraezinak OSI hurrenkerarekin, honelakoetan osagarria eta erakuslea posizio beraren alde lehiatzen direlako. Aurreikuspena bete egiten da eta bateraezinak dira hasierako erakusleak eta OSI hurrenkerak:

- (54) a. * hónek bere emaztearen_i Riberaren t_i irudiok
 b. hónek Riberaren bere emaztearen irudiok

Eskematikoki adierazita:

- (55) *Mendebaleko euskara*
 a. * erakuslea-Osagarria-S-t_{osagarria}-I-Det
 b. √ erakuslea-SO-I-Det

²⁰ Egia esan, ezerk ez du galarazten P-S-O hurrenkeretan, osagarria posesiboaren aurrera mugitzea. Datuak nahiko marjinalak dira *scrambling*-ik gabe ere, baina nago osagarriaren mugidarekin ez dela aparteko zailtasunik eransten, interpretazio argia lortu ahal bada:

- (i) a. (?) Von Thyssen-en Velazquezen erregearen irudia (ekarriko dute Bilbora)
 b. (?) erregearen_i/ Von Thyssen-en Velazquezen t_i irudia (ekarriko dute Bilbora)

(ib) sinestea errazteko, erregea Velazquezek ez ezik beste artista batzuek pintatu dutela suposatu behar da. Irakurlearen esku uzten dut (ia-b) adibideen artean kontrasterik baden epaitzea.

Bestela esanda, Eguzkitzaren jatorrizko SOI eta OSI datuen berrinterpretazioaren argitara, *subjektua-objektua* egitura multzoa [espez, D] gunea libre dagoelarik bakarrik apur daitekeela egiaztatzen dugu. Baina egiaztapen honek, zeharka, iradokitzen du proiektzio beraren espezifikatzaile bana betetzen dutelako ideia, Richards-en azterbidearen arabera, zuzena izan daitekeela.

4.2.2. *Pertsona-Kasuaren Murrizketak eta [+pertsona] genitiboak*

Jabetza-genitibo osagarria eta subjektua buru sintaktiko berberaren espezikatzaile banatan daudela proposatzeak aurreikuspen interesgarria egiten du: *Pertsona-Kasuaren Murrizketa* delakoaren eragina sumatuko dugula behar bezalako baldintzak sortzen direnean. Baldintzok hauek lirerateke: buru berak ezin duela tasun morfosintaktiko berdina (pertsona) bi bidez erkatu. Halako eragozpenik ez da inoiz sortzen bi DS argumentuk euren tasun morfosintaktikoak bi proiektiotan erkatzen dituztenean:

- (56) a. nik zu ikusi zaitut
 b. *Zuk ni etsaiari saldu naiozu (Ormazabal & Romero 2007: 316)
- (57) a. My {description, portrait, vision, examination} of you
 b. Tu {descripción, necesidad, retrato} de mí

Arestiko (57a) bezalakoetan ez da arazorik sortzen subjektuak eta osagarriak, zeinek bere aldetik, beren kasu eta pertsona tasunak buru funtzional banarekin (Dnb eta a/v) erkatzen dituzten neurrian; (57b) bezalako adibideak, berriz, *Pertsona-Kasuaren Murrizketaren* ondorio gisa ikusten dira:

- (58) *Pertsona-Kasuaren Murrizketa* (Bonet 1991):
 DATIBORik bada, orduan ACC/ABS argumenduak 3.pertsonakoa behar du


Murrizketa hau gaur egungo sintaxi teoriaren eztabaidagai iturria da: Ormazabal & Romero (2007) lanak, esaterako, argudiatu du murrizketa hau sintaktikoa dela funtsean, kasu eta morfologia gauzapenetik independentea, eta proposatzen du osagarri-komunztaduraren murriztapen batera laburbiltzen dela: bi [+bizidun] osagarri ezin dute aditz konplexuarekin komunztatu. Artikulu honetan, ez gabilta osagarriez hausnarrean, berdin gauzatzen diren subjektu eta osagarriez baino, eta alde horretatik interes handiagokoak izan daitezke azterbide orokorrak: Boeckx (2003) eta Jeong (2004) lanek, esaterako, defendatzen dute tasun anitzeko erkatze egoeretan zilegi dela sintagma batek baino gehiagok kasu berdina erkatzea, kasua helburuaren tasun formal hutsa den neurrian (eta modu simetrikoan erkatu daitekeen neurrian); baina, autore horien arabera, ez da zilegi sintagma batek baino gehiagok pertsona-tasun berdinak erkatzea, pertsona-tasunak helburuaren tasun interpretagarriak direlako eta modu asimetrikoan erkatzen direlako (hurbilenak baino ezin ditu behin erkatu). Jeong-en (2004) hitzetan, ezin dira bi [+pertsona] (edo [+bizidun]) DS izan eremu berean. Ildo beretsuan, Rezacek (2008) argudiatu du PKM delakoaren ondorioak buru edo *zunda* (*probe* ingelesez) berak *pertsona-komunztatu* harremana DS helburu birekin aldi berean ezarri nahi duenean sortzen direla: lehenak bigarrenarekiko komunztadura harremana eteten edo eragozten du, baldin eta lehenak bigarrena o-komandatzen badu.

Arazorik ez da genitibo biak eremu bitan gauzatzen direnean (cf. 57-ko adibideak) eta zunda/buru birekin komunztatzen direnean: goiko genitiboa *posesibo* buruarekin lotu ohi da eta beheko genitiboa beheargoko buru batekin (Izenarekin edo izenari lotutako *i* “*i* txikia” buru funtzionalarekin). Nolanahi ere den, guri dagokigunez, subjektua *eta* osagarria *posesibo* buru

beraren espezifitzaile banatan daudenez, gure aurreikuspena da bi DSak ezin direla [+pertsona] izan. Test polita lehen eta bigarren pertsonak ematen digute, biek [+pertsona] tasuna dutelako. Testuinguru honetan oso esanguratsua da honako adibideen arteko kontrastea:

- (59) a. (?) nire pailazo baten bi erretratuak / (?) nire euskalki baten deskribapena
 b. (?) artista baten nire bi erretratuak / (?) artista baten nire deskribapena
 c. * nire zure bi erretratuak / * nire zure deskribapena
 d. *zure nire bi erretratuak / * zure nire deskribapena

Alegia, (59a-b) adibideak bitxiak dira oro har subjektu eta osagarri diren jabetza-genitibo bi erreskadan bitxiak direlako, baina lehen eta bigarren pertsonako edozein subjektu-osagarri konbinaziok gainditzen du bitxitasunaren muga, eta zeharo ezgramatikala da. Arbola-diagrama batean:



Gauzak horrela, euskarazko jabetza-genitibo biak, subjektua eta osagarria, buru beraren eremuan daudela, eta buru beraren espezifikatzaile anitzeko egitura bat sortzen dutela aldarrikatzea sinesgarritasun handiko hipotesia da.²¹

²¹ Eztabaida honen harian, interes handikoa da euskarazko izenordain elkarkari eta bihurkarien jokabidea. Jakina denez, lehen eta bigarren pertsonako elkarkari eta bihurkariak hirugarren pertsona singularraren jokabide sintaktikoa eduki ohi dute:

- (i) a. Zuk ispiluan zeure burua ikusi {duzu / *zaituzu}
 b. Guk kalean {elkar, bata bestea} sarritan agurtu {dugu / *gaitugu}

Datu hau oharkabean pasatu ohi da gramatikan, baina Rebuschik (1991), esaterako, nahiko argi uzten du, “x-en burua” bihurkarietara dagokienez, sintaxian hirugarren pertsona dena posesibotik datorren indizeari esker bihurtzen dela lehen edo bigarren pertsona Forma Logikoan. Pentsatzekoa da antzeko analisia behar dela elkarkariaren alorrean: horiek sintaktikoki hirugarren pertsona singular modura jokatzen dute, baina LF mailan, lehen eta bigarren pertsonaren erreferentzia izan dezakete. Gauzak horrela, ez da harriztekoa PKM delakoaren aztarnarik ez sumatzea anafora genitiboetan:

- (ii) a. [gure bata bestearen erretratuak] inprimatu nahi ditut.
 b. [gure elkarren amodioa] han handitu den denboran... (P. Larzabal, *Gerla urte*)
 c. Epaimahaiari gustatu egin zaio [(zure) zeure buruaren {kritika, defentsa}]

5. Ondorioak

Artikulu honetan proposatu dut euskarazko DS-en barnean bai subjektuak bai osagarriak *posesibo* buru funtzionalaren espezifikatzaileko igoera egiten dutela, espezifikatzaile anitzeko konfigurazio bat sortuaz. Erkatze anizkuneko konfigurazioa PKM delakoaren ondorioak ikusteak baieztatzen du, bai eta hurrenkera murriztapen batzuen azterketak ere (*P-S-O* hurrenkera ezmarkatua, zenbatzaileek mugidaren aurreko besarkadurari eustea, *scrambling*-a eta beronen interakzioa erakusleekin). Proposamenak iradokitzen du Gramatikal Unibertsalak kasua n-aldiz esleitu dezateken buruak permititzen dituela, baina buru hauek behin baino ezin dituzte φ - edo pertsona-tasunak erkatu, Jeong-ek (2004) defendatzen duen bezala.

Euskarak egiturazko kasu genitiboa setatia izan daitekeela erakusten du: DS argumentu orok igo ahal, eta *behar*, du determinatzaile-sintagmen barnean.²² Salbuespen bakarra IS etenak edo biluziak dira, hirugarren atalean iradoki dudanez. Halakoetan jabetza-genitiboa osagarriaren interpretazioari lotzen zaio soilik. Jabetza-genitibo hauek azken baliabide modura, *posesibo* buru funtzionalik ezean ezarriak dirudite eta, itxura batean, Chomskyk (1986) berezko kasu genitiborako emandako ezaugarriak betetzen dituzte: izenaren argumentu zuzena den osagarria baino ezin da agertu. Nolanahi ere, ez da izenaren eta genitiboaren arteko ondokotasun baldintza ikusten;

- (61) a. Zirriborro hori [(*Mirenen*) txikitako (**Mirenen*) erretratu]-tzat jo dut.
 b. Olatu hauetako bakoitza harrotu eta ezerezten duenean, [*bere buruaren* une hartako argazki] gertatzen da (KM, MEIG III, 136)

Adger-ek (2003) esandakoaren bidetik, litekeena berezko jabetza-genitibo hau *i* “izen txikia” buruaren mende egotea, eta horrexek azaltzea, nola edo hala, zergatik ez den osagarria izenaren ondo-ondoan ageri. Baina gai honen ingurukoak hurrengo baterako utzi beharko ditugu.

Pertsona-identitatea LF mailan soilik gauzatzen duten adibide hauek onak izateak argi uzten du Pertsona-Kasuaren Murrizketaren ondorioak guztiz sintaktikoak direla eta ez interpretaziozkoak edo semantikoak; ondorio honek bat egiten du Ormazabal & Romero (2007) lanaren ildoarekin, noski.

²² Alde horretatik, *zaramaren Espainiako maitaleak* bezalako adibideez Artiagoitia (2000: 55-6) lanean esan nituenak oker daude: halakoak gramatikalak dira eta osagarri diren jabetza-genitiboak *ez* daude izenaren ondo-ondoan. Bitxiak izatekotan, interpretazio arazoengatik (edo osagaien luzeragatik) izan daiteke, baina ez arrazoi gramatikalengatik.

Aipamen bibliografikoak

- Adger, D., 2003, *Core Syntax. A Minimalist Approach*, Oxford: Oxford University Press.
- Alexiadou, A. & C. Wilder (arg.), 1998, *Possessors, Predicates and Movement in the Determiner Phrase*, Amsterdam: John Benjamins.
- _____, L. Haegeman & M. Stavrou, 2007, *Noun Phrase in the Generative Perspective*, Berlin: Mouton de Gruyter.
- Amundarain, I., 1997, *Juntadura eta elipsisia euskaraz*, EHUko doktorego tesia.
- Artiagoitia, X., 1998, “Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan”, *Uztaro* 27, 33-61.
- _____, 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & EHU.
- _____, 2002, “The functional structure of the Basque noun phrase”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Bilbao: Supplements of ASJU, 73-90.
- _____, 2006, *Euskarazko izen-sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*, EHUko eskuizkribua.
- _____, 2008, “Some arguments for complement-head order in Basque DPs”, in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, Bilbo-Donostia: ASJUren Gehigarriak, 71-92.
- _____, 2009, “Genitive case in Basque and multiple checking”, EHUko eskuizkribua.
- Boeckx, C., 2003, “Symmetries and asymmetries in multiple feature checking”, in C. Boeckx and K. K. Grohman (arg.) *Multiple Wh-Fronting*, Amsterdam: John Benjamins, 17-26.
- Bonet, E., 1991, *Morphology after syntax: Pronominal clitics in Romance*, MIT PhD dissertation.
- Cardinaletti, A., 1998, “On the deficient/strong Opposition in Possessive Systems”, in A. Alexiadou eta C. Wilder (arg.), 17-54.
- Chomsky, N., 1986, *Knowledge of Language*, New York: Praeger.
- Chomsky, N., 1995, *The Minimalist Program*, Cambridge MA: MIT Press.
- Cinque, G., 1994, “On the evidence for partial N-movement in the Romance DP”, in G. Cinque (arg.) *Paths towards Universal Grammar. Essays in honor of Richard S. Kayne*, Washington DC: Georgetown University Press, 85-110.
- _____, (arg.), 2002, *Functional Structure in DP and IP. The Cartography of Syntactic Structures, Volume I*, Oxford: Oxford University Press.
- _____, 2003, “The dual source of adjectives and XP vs N-raising in the Romance DP”, NELS 34 jardunaldietan aurkezturiko txostena.
- Coene, M. & Y. D’hulst (arg.), 2003, *From NP to DP. Volume II: The expression of possession in noun phrases*, Amsterdam: John Benjamins.
- Collins, C. & M. Baltin (arg.), 2001, *The Handbook of Contemporary Syntactic Theory*, Oxford: Blackwell.
- Eguzkitza, A., 1993, “Adnominals in the Grammar of Basque”, in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 163-187.
- _____, 1997, “Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea”, *Hizpide* 40, 39-52.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, LOT series 47, Utrecht. Leiden University PhD dissertation.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal gramatika. Lehen urratsak (I)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1993, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*, Donostia: Erein.
- _____, 1991, “Izen sintagmaren egituraz”, in J. A. Lakarra (arg.) *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Donostia: EHU, 847-865.
- _____, 1997, “Euskal Gramatika”, in *LUR entziklopedi tematikoa. Hizkuntza eta Literatura*, Donostia: Lur.

- _____, 2003, “-EN eta -KO atzizkiez berriro”, in J. M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturi buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian Iker 14 (1)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 279-303.
- Horstein, N., 1995, *Logical Form. From GB to Minimalism*, Oxford: Blackwell.
- Ihsane, T., 2003, “A typology of possessive modifiers”, in M. Coene & Y. D’hulst (arg.), 23-42.
- Jeong, Y., 2004, “Asymmetries in Multiple Case Assignment”, in V. Chand et alii (arg.) *WCCFL 23 Proceedings*, Somerville MA: Cascadilla Press, 413-421.
- Kiss, K., 2002, *The Syntax of Hungarian*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Lindauer, P., 1998, “Attributive Genitive Constructions in German”, in A. Alexiadou eta C. Wilder (arg.), 109-140.
- Longobardi, G., 2001, “The structure of DPs: some Principles, Parameters and Problems”, in C. Collins and M. Baltin (arg.), 562-601.
- Mitxelena, K. 1988, *Euskal Idazlan guztiak VI. Hizkuntzalaritzaz I*, Bilbo: Euskal Editoreen Elkarte.
- Ormazabal, J. & J. Romero, 2007, “The Object Agreement Constraint”, *Natural Language and Linguistic Theory* 25, 315-347.
- Oyharçabal, B., 1988, “Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan”, *ASJU* 22.1, 93-97.
- _____, 2006, “DSaren barneko zenbait ordena kontu”, in B. Fernández & I. Laka (arg.) *Andolin Eguzkitza gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Bilbao: EHU, 741-755.
- Pearce, E., 1998, “The syntax of genitives in the Maori DP”, *Canadian Journal of Linguistics* 43, 411-434.
- Picallo, C., 1991, “Nominals and nominalizations in Catalan”, *Probus* 3.3, 279-316.
- _____, 1994, “Catalan possessive pronouns: the Avoid pronoun principle revisited”, *Natural Language and Linguistic Theory* 12, 259-299.
- Schoorlemmer, M., 1998, “Possessors, articles, and definiteness”, in A. Alexiadou eta C. Wilder (arg.), 55-86.
- Rebuschi, G., 1991, “Basque pronouns and Relativized Locality”, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 115-144.
- Rezac, M., 2008, “The syntax of eccentric agreement: the Person Case Constraint and absolute displacement in Basque”, *Natural Language and Linguistic Theory* 26, 61-106.
- Richards, N., 2001, *Movement in Language. Interactions and Architectures*, Oxford: Oxford University Press.
- Rijk, R. de, 1988, “Basque Syntax and Universal Grammar”, *Euskara Biltzarra. II Euskal Mundu-Biltzarra I*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 69-88.
- _____, 1993, “Basque hospitality and the suffix -ko”, in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 145-162.
- Sarasola, I., 1979, “Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan”, *Euskera* 25.2, 431-446.
- Schoorlemmer, M., 1998, “Possessors, articles, and definiteness”, in A. Alexiadou eta C. Wilder (arg.), 55-86.
- Scott, G.-J., 2002, “Stacked Adjectival Modification and the Structure of Nominal Phrases”, in G. Cinque (arg.), 91-120.
- Szabolcsi, A., 1994, “The Noun Phrase”, in F. Kiefer & K. E. Kiss (arg.) *The Syntactic Structure of Hungarian. Syntax and Semantics* 27, New York: Academic Press, 179-274.
- Trask, R. L., 1985, “-KO atzizkia euskaraz”, *Euskera* 30.1, 165-173.
- Ura, H., 1996, *Multiple Feature-Checking: A Theory of Grammatical Function Splitting*, MIT PhD dissertation.
- Wit, de P., 1997, *Genitive Case and Genitive Constructions*, University of Utrecht PhD dissertation.
- _____, & M. Schoorlemmer, 1996, “Prenominal arguments in Russian, German and Dutch”, *ZAS Papers in Linguistics* 5, 184-202.
- Zabala, I., 1999, “Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak” in J. C. Odriozola (arg.) *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, Bilbo: EHU, 107-157.